

nela ezin sor daiteke plataformarik. Beharrezkoa da alor honean ohitura berriak sortzea, eta agian *Elkar*-ek urratu du bidea.

Bazen garaia. Baina ez da beranduegi. Sorkuntzaren hamargarren urteurrena ospatzeko modurik jatorrenetakoa iruditzen zait *Elkar*-ek egin duen hau. ■ *Joan Altzibar.*

## Mendebaldea berriro demofaxismorantz

Historiak, nonbait, ez daki zuzen ibiltzen bere bidean, ezker-eskuin zambiluka joaten da, mozkorrak bezala. Orain eskuinerantz ari da erortzen, mendebaldeko histori zati hau behintzat. Ameriketatik Ingalaterrara, Frantziatik Alemaniara. Esan nahi bait du, Espainia deritzon moja-internatu horretan, betiko eskuin-zulotik irten beharrik ere ez dela egongo, gizarte progresatuenen parean aurkitzeko, eta laster nahikoa ezkerrean gabiltzala mundua, irudituko zaigula.

Richard Strauss eta Franz Lehar-en dantzak, Puccini-ren *Tosca*, Isadora Duncan: bai, alai estreinatu genuen mendea. Matisse-k etxe-jauregiak dekoratzeko estilo berria erakusten zuen Parisen, Gauguin-ek hegoaldeko itsasoaren margo beroak ekartzen zituen Europara, Picasso bera urdin zebilen. Laster ilundu zuen.

Sarajevo-n lehertuko zen hodeia. Trumoiak ikaratuta, munduko oilategia historiaren eskuin muturrean anparatu zen. Demokrazia liberal zaharra faxismoaren aterpean, demokrazia herritarra izan behar zuena stalinismoan, Amerika gazte libreak berak New Deal aldera jiratu zuen larri-larri. Denak eskuinean bildu ziren.

Beste Mundu-Gerra batek aterpe denak hautsi zituen berriro. Birreirikuntzaldi gorria iragan bezain laster, 50. urteetan, askatasunaren udaberri epela dastatu zen, jendeak ezagutzen ez zuen askatasun oparo eta eroso guri bat, aisiaz eta itsas balneario konfortez. Askatasun kontzesiboen euforia inkontzientea puztuz eta hanpatuz joan zen, bapatean izuaren izuz deskubritzeko, ezker muturreko amildegiaren arroka-punttetan ari omen zirela olatzen arrisku izugarrian. Joa bait zuen kalean 68ko maiatzak.

Jendeak ez zuen, halere, astralalada zoroan anparo bila ihes egin oraingoan. Geldi-geldi bere lekuan geratu zen, arnasa hartzeko ere beldurrez. Honez gero ez zuten Alderdi eta sindikatu zalapartari primitibo batzuek harat-honatarazten herria,

baina administrazio zuhur eta guztiz jakitun batek, poliki-poliki eta inoren aztoramendu gabe. Jendeak bazekien administrazioak dena ondo konponduko zuela eta ez zela ezer pasako.

Banan-banan, administrazioaren makina zuhur eta guztiz jakituna etxeko ate-lehio denak ari da ixten, sabaibegiak itsutzen, zirrikituak tapatzen, kristal argiageri denak burilatzen. Zaratarik batere gabe, hau deportatu egiten da, hori garbitzeko arrotz beltzaran bati ematen zaio enkargua, bestea ikusiko dugu nola bera suizidatzen den gartzelan, kontrainsurgentzia eskuak zikindu gabe antolatzen da, desagertuek ez dute gerrarik emango lurraren azpitik, kontrolatu ahal uste diren istiluak desdramatizatzea morroiari uzten zaio, behar denarekin konforme egonez progreak izateari ez uzteko adinako diskonformitate dosifikatuaren arte berri bat asmatzen da intelektualentzat, irudiarentzat oso estetiko egiten bait du horrek, poliziari gusto dituen legeak eta uniformeak josten zaizkio, nazioartean oraindik falta ziren konbenioak sinatzen dira beltzak eta kolorezkoak eta txikanoak etorri ziren bidetik atzera bidaltzea da soluzio errazena. Beno, behar ziren gauzatxoak, denak ordenu oncan bizitzeko.

Eta, ez ezkerrean, ez eskuinean, mundua bake santuan dago, berriro zentru-zentruan, Ptolomeok berak ipini zuen baino boro bilago. ■ G. Noss.

## Zein hizkuntza Unibertsitatean?

Hilabete batzuetako duda-muden ondoren, lehertu da azkenik arazoa, eta nola, gero? Espainiako Konstituzioaren arabera, ezinezkoa da Unibertsitatean gaztelania ez den beste hizkuntzarik ezartzea, nahiz eta Unibertsitateko Gobernu-Zuzendaritzak berak hartu horretarako erabakia. Valencia-ko Lurralde-Entzuetegiak *dixit*.

Arazoan mugitzen diren indar sozialek zerbait balio badute, oraingo hau izango da hizkuntzen eztabaida edo borroka unibertsitaria ekaitz handi bihurtuko den egokiera. Egin dezagun, bada, historia pixka bat.

Aurtengo ekainaren 20an, Valencia-ko Unibertsitateko Gobernu-Zuzendaritzak erabaki soziolinguistiko garrantzitsua hartu zuen: "Gure Eskola eta Fakultateetan, lehen ikasturtean ezik, Komunitate valentziarreko bi hizkuntza ofizialeetatik edo zinetan eman ahal izango dira jakintzagaiak, irakaslearen era-